


ZARAUTZ



Udalbatzarra. Herriko ikasleek bete zuten atzo udaletxeko batzar aretoa eta euren proposamenak eta eskaerak plazaratu. :: AMAXKAR

Ikasleek bete zuten udal batzar aretoa bioaniztasuna lantzeko

Ikastetxe guztietako ikasleek landu dute azken bi urteotan gai hau

Alkate eta zinegotziek udalbatzarrean ezagutu dituzte gure ikasleen proposamenak eta denak aztertuko dira

:: JUAN MARI ZUBIAURRE

ZARAUTZ. 2011-2012 ikasturteari dagokion Eskolako Agenda 21aren udalbatzarra ospatuko zen atzo goizean Zarauzko udaletxean eta bertan udaleko ordezkariekin batera, La Salle, Salvatore Mitxelena Ikastola, Antoniano, Oteitza, Orokieta eta Lizardi ikastetxeko ikasleek hartu zuten parte.

Aurtengo ikasturtean Zarauzko ikasleek bioaniztasuaren gaia landu dute eta, gaiak eskaintzen dituen aukera guztiak ikasturte batean jasotzea ezinezkoa gertatu zenez joan den ikasturtean, aurten bigarren ikasturtea izan da gaia berdinarekin. Horrela, herriko hainbat guneren egoera, egunerokotasunean buruturiko ekintzen ondorioak, egungo egoera eta etorkizunaren aurreikuspenak, norbanakoaren erantzukizuna eta hainbat aldaketan beharra, Zarauzko gune zehatzen egoera eta abar luzea izan dituzte aztergai.

Orain, hausnarketa-prozesua amaitu den honetan, egindako lan guztiaren ondorioz Zarauzko herriaren topaturiko arazoan identifikazioa bideratzeaz gain, arazo ho-

rei aurre egiteko proposamenak eta konponbideetara hurbilduko gaituen konpromisoak hartzeko garaia iritsi zaie ikasleei eta horretarako antolatzen zen udalbatzarra.

Ikastetxe bakoitzeko ikasleak gai ezberdinak jorratu dituzte, horrela Oteizakoek hondartza, itsasoa eta duna gaiaren inguruko proposamenak ekarri zituzten. Salvatore Mitxelena ikastolakoek, basoa eta larrea; Antonianoek, padura, ibaia, ura, papera, energia eta mugikortasuna; Lizardikoek, bioaniztasun orokorra, informazioa eta sentsibilizazioa; Orokieta, natura zaindu, bioaniztasuna ugartu eta kontrola; eta azkenik, La Sallekoek, hondakinak eta kutsadura gaiaren inguruko proposamenak.

Ikastetxe guztiak lan bikaina egin dute euren ikasleekin eta landutako proposamen guztiak udalbatzarrean aurkeztu ondoren erantzuna jaso dute. Interesgarria noski gure ikasleen proposamenak ezagutzea eta hona hemen beraiek eginiko ekarpenak.

Antoniano:

Bizikleta alokairuen zerbitzua jarri. Ibaia: Zaborra botatzea debekatzeko isuna jarriz hau betetzen ez duenari. Gauzez eraikuntzak ez argiztatzea. Hauxe gain golf zelaiaren inguruan hausnarketa sakona eginen zuten. Euren esanetan, Inurritzan golf zelaiak ureztatzen direnean biotópoko putzuaren ur mai-

la nabarmenki jaisten da. Batzuetan ia lehortzeraino, garaiaren eta egoeraren arabera. Uraren erabilerearen eta mailaren kontrola eramatea proposatzen dugu. Guzti honek hegazti migratzaileen komunitatean eragina izango badu, galdera da, nola egin aurre egoera honi? Zein izango litzateke irtenbide egokia? Eta jarraian irteera posibleak azaltzen dituzte. Bar, egoera ikusirik, gutxienez saiakera bat egin beharko litzateke golfa tokiz mugitzeko eta bertan errekupeazio lanak egin dunak bihurtzeko bere landaretza eta bizidunekin. Gure ustez golf zelaiak Asti ingurura mugitu beharko litzateke, hau kirolarekin loturik baitago. Eta bestea, ura beste toki batetik hartzea kontutan izanda horrek duen kostea.

Oteiza:

Duna: biztanleria handiketa izan arren dunetako eremuak ez erabili (gizakiak lurralde asko hartu ditu eta animalia askoren habitatak hartu ditu). Inurritzako ibilbidean zehar maiz egiten dugu topo txakur kakekin. Jabeak arau hori ez badu errespetatzen zigorra ezarriko zaio.

Salvatore Mitxelena:

Zuhaitz bat moztzen denean beste bat landatu. Santa Barbara: Baso horretan pinu asko dago. Bertako zuhaitzak landatzea proposatzen dugu. Larrea: Pestizidak, fungizidak eta herbizidak badira eragileak,

debekatzeko eta nekazariei produktu eramangarriago batzuk aurkeztea. Mutxio eta Vista Alegrek zenbait gabezi dituzte: Vista Alegren garbitasuna areagotu (txakur kakak biltzeko poltsak) eta Mutxion auzolana bultzatu.

Lizardi:

Padura eta dunetako bidean kartel gehiago eta modu deigarrian jarri jende askok ez baitaki ekosistema hauek duten garrantzia. Zaborontzi gehiago jarri eta hauek erabiltzen ez dituenari isuna jarri.

La Salle:

Hondakinen kudeaketan birziklapen tasa areagotzeko atez ateko bilketa ez den beste alternatibaren bat dagoen aztertzea; adibidez: sentsibilizazio kanpaina gehiago, kontenedoretan txip modukoren bat jartzea... Etxeetan gaikako bilketa egiteko konpartimentu ezberdinetako zaborontzi egokiak diseinatu eta erosteko erraztasunak ematea. Kaleak txukun mantentzea.

Orokieta:

Akuiferoa: Zarauzko herrigunea akuifero baten gainean dago. Herriko guneen gainazalean asfaltatzeak, erortzen den euri ura kolektoreetara bideratzeak behar baino ur gehiago ateratzeak akuiferoaren ohiko portaera aldatzea dakar. Natura gehiago zaindu gutxiago ehizatuz.

EN BREVE ZARAUTZ

Viaje a Goñi con Inurritza Elkarte para el 17 de mayo

La sociedad de jubilados Inurritza Elkarte ha organizado para el próximo 17 de mayo -jueves- una excursión a la localidad navarra de Goñi, con salida a las 8.30 horas desde la misma sociedad, con visita al nacimiento del río Arteta, al Museo Etnográfico de Pamplona, con posterior comida en el hotel rural Teodosio de Goñi y, visita al Monasterio de Iranzu. Se puede apuntar hoy, mañana, y los próximos días 7, 8 y 10 de mayo a partir de las 6 de la tarde. El pago (15 euros) se realizará en el momento de la inscripción.

Hitzaldi-etzabaida eta jantoki beganoa, gaur Putzuzulo gaztetxean

Gaur 18:30ean Putzuzulo gaztetxean, hitzaldi-etzabaida Bizi Tokiri buruz. Antolatzaileei funtsezkoak iruditzen zaizkien balore batzuen arabera gure haurrak hezteko, haien heziketa gure gain hartu dugu. Bizi Toki, haientzat jarduerak antolatzeko Baxe Nafarroako Behauze herriko baserri bat da. Hauek dira sus-tatu nahi dituzten baloreetako batzuk: euskara ikasi eta mintzatu, gurasoen esku hartzea, ikerketa pedagogikoa, oreka ekologikoa, bizimolde autonomoa, naturarekin bat, zigorrik eta saririk gabe hezi, elkartasuna, ikuspegi kritikoa, nor bere jarduerak hautatu, haur autonomoak, haurren ongi izatea... Ondoren, 20:30etik aurrera, jantoki beganoa. Tito eta Jp chef-ek bi plater eta postrea prestatutako dituzte, beraientzat giza animaliak ez direnak ezta beraien deribatuak ez dira izango protagonista. Janari guztia gure berdura plaza maitagarrian erositakoa. Hau dena, bakoitzaren poza eta borondate ekonomiko xumearen truke. Etekinik aterako balira, animalien eskubideen defentsarako erabiliko liriteke. Hileko lehenen go ostegun guztietan Zarauzko Putzuzulo gaztetxean, gaur hasita.

Hiru jaiotza

Azken orduetan beste hiru haur zarauztar jaio dira. Beraien izenak: Manex Elkoro Izurieta; Iker Acuña Abilleira eta Martin Sodupe Gesalaga. Lerro hauen bidez, zorionak beraien guraso eta senitartekoei.

Agenda

Farmacia de guardia: Hoy Larrañaga. Noche, Zulaika.